

Istorio handiez

Miren Azkarate
Badiola

Dinosaurioak mundu guztian zehar bizi ziren eta noski, baita Euskal Herrian ere», ari zen kontatzen aitona bere bilobei. Biek adi-adi begiratzen zioten, batez ere gazteenak. Salako sofán bere gorputz txikia eserita eta begi handi-handiak zabalik, baita ahoa bera ere, aitonen istorioan murgilduta. Esku banatan dinosauro bat zuela arnasa ere ixil-ixilik hartzen zuen, badaezpada daturen bat galduko ote zuen. Biloba zaharrenak liburu bat zuen esku ar-

tean baina aitonen hitzak interesgarriagoak ziruditen, ordu laurdenez ez baitzuen orrialde bat bera ere pasa. «Euskaraz, bai, euskaraz hitz egiten zuten bertako dinosauroek, zein hizkuntzatan bestela?», erantzun zion bilobaren galderari. Hori zen ni nerabe nintzela bizi izan nuen pasarte bat, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*-rekin eta une hartan zaintzen nituen bere bi bilobekin. Ongi zetorkionean eta abisatu gabe pasatzen zen etxetik eta beti zuen bi-

lobei kontatzeko ipuin edo istorioren bat. Bere kontatzeko moduak umeak eta ume ez ginenok liluratsen gintuen. Aitzakia oro baliatzen zuen Euskal Herriaz eta euskaraz aritzeko. Aste honetan sei urte bete dira istorioak kontatzeari utzi zionetik eta bilobak heldu bihurtu dira aspaldi. Hantxe ikusi nituen igandean, haien aitonen horma irudiari so, Antigua auzoan, instituzioek eman nahi ez dioten aitortza herriak omenaldi xume bezain eder batean emanez. •

Lagun solidoak

Antton Izagirre

Urteko kontsumo handienetako egunak pasa berritan, Olentzero lagun ezkutu modura iritsi zaigunean, ahaleginak arazo bihurtzen zaizkigu taldeko lagun ezagun horri laguntasunaren neurriko oparia egiten saiatzen garenean. Eta asmatuko ez bagenu? Haren laguntasuna galduko ote genukeen galdetzen dugu. “Ez horratio!” –laguna, laguna bada– pentsatzen dugu. Lagun ezkutuaren eskutik iritsi zaidan liburuak zer pentsa eman dit.

Hausnarketa piztu dit “laguna” kontzeptuaren gainean, gure mundu globalizatuan ematen ari zaion zentzu nahasiaz. Gizarte likido, aldakor, suntsikor eta iragankorrean bizi garela ezin ukatu; ezin, era berean, horren aurkako borroka iraunkorra abiatu. Baina badira zenbait kontzeptu eta jarrera solido bihurtzeko bideak, norberak bere gizatasunetik egin beharreko hautu pertsonal eta kolektiboak. Ohitzen ari gara esparru pribatuari dagozkion hi-

tzak eta esanahiak eremu publikoan normalizatzeraz. “Lagun” hitzak emozioei loturiko esanahia du eta ez, talde birtualetan sortutako harremanerako inposatu nahi diguten erabilpena. “Klik” baten menpeko harremanak arinak dira, hauskorak, “ez-lagunak”. Uste hori belaunaldi berrien bizipen eta pentsaeren aurka joan litekeela jakinik ere, honetan, bederen, nire askatasunari eutsi nahiko nioke laguna eta erabiltzailea ez nahasteko. •